


## Euskal AEko industria-prezioek % 3,0 egin dute gora 2022ko apirilean, aurreko hilabetearen aldean

**2021eko apirilarekin alderatuta, industria-prezioek % 26,3 egin dute gora, energiaren prezioetan izan diren igoera handien ondorioz**

Euskal AEko industria-prezioek % 3,0 egin dute gora 2022ko apirilean, aurreko hilaren aldean, Eustatek dituen datuen arabera. Apirileko urte arteko tasa –azken hamabi hiletako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 26,3koa da.

### Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzago batek erakusten du 2022ko apirilean prezioetan aurreko hilaren aldean hazkuntza nabarmenenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 9,1), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 5,3) eta *Industria kimikoa* (% 4,1). Hil artean prezioetan beherakadak izan dituzten sektoreak, berriz, honako hauek izan dira: *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 2,5 behera), *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 0,5 behera) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 0,1 behera).

Helmuga ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenarekin jarraitzeko, prezioen aldakuntzak, 2022ko otsailarekin alderatuta, positiboak izan dira honako hauetan: *Energia* (prezioek % 4,7 egin dute gora); *Bitarteko ondasunak* (% 3,1 gora), eta *Ekipo-ondasunak* (% 2,0 gora).

Kontsumo-ondasunetako prezioek, oro har, % 2,2 egin dute behera, aurreko hilarekin alderatuta. Beherakada Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen % 2,7ko beherakdaren ondorio izan da; izan ere, Kontsumo iraunkorreko ondasunek % 1,1 egin dute gora.

## Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2022

|                                                                  | INDIZEA      | ALDEAREN %  |             |
|------------------------------------------------------------------|--------------|-------------|-------------|
|                                                                  |              | m / m-1     | m / m-12    |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                                           | <b>133,0</b> | <b>3,0</b>  | <b>26,3</b> |
| <b>SEKTORE-BANAKETA</b>                                          |              |             |             |
| <b>Ateratze-industriak</b>                                       | <b>111,3</b> | <b>0,8</b>  | <b>9,1</b>  |
| <b>Manufaktura-industria</b>                                     | <b>127,2</b> | <b>1,8</b>  | <b>19,5</b> |
| Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria                   | 114,3        | -2,5        | 7,0         |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza           | 103,8        | 0,5         | 3,8         |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak                             | 131,5        | 4,0         | 26,1        |
| Kokeak eta petrolioaren finitzen                                 | 168,6        | -0,5        | 61,9        |
| Industria kimikoa                                                | 147,5        | 4,1         | 30,1        |
| Botiken fabrikazioa                                              | 124,5        | 3,8         | 11,1        |
| Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak      | 107,5        | 0,3         | 8,3         |
| Metalurgia eta produktu metalikoak                               | 139,1        | 5,3         | 26,7        |
| Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa | 120,4        | 1,9         | 11,6        |
| Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa                     | 112,7        | 0,1         | 5,1         |
| Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa  | 108,8        | 0,2         | 4,4         |
| Garraiorako materialen fabrikazioa                               | 105,2        | -0,1        | -1,1        |
| Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa    | 111,2        | 1,2         | 2,8         |
| <b>Energia elektrikoa, gasa eta lurruna</b>                      | <b>168,5</b> | <b>9,1</b>  | <b>71,8</b> |
| <b>Ura</b>                                                       | <b>121,7</b> | <b>1,2</b>  | <b>10,3</b> |
| <b>INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA</b>                         |              |             |             |
| <b>Kontsumo-ondasunak</b>                                        | <b>113,0</b> | <b>-2,2</b> | <b>5,1</b>  |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                                     | 110,1        | 1,1         | 4,9         |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                                  | 113,5        | -2,7        | 5,1         |
| <b>Ekipa-ondasunak</b>                                           | <b>113,3</b> | <b>2,0</b>  | <b>5,3</b>  |
| <b>Bitarteko ondasunak</b>                                       | <b>129,1</b> | <b>3,1</b>  | <b>21,1</b> |
| <b>Energia</b>                                                   | <b>172,8</b> | <b>4,7</b>  | <b>70,0</b> |

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Maiatzaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Urte arteko terminoetan, 2022ko apirila 2021eko apirilaren aldean, prezioen igoera handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 71,8), *Kokeriak eta*

*petrolio-fintzea* (% 61,9), eta *Industria kimikoa* (% 30,1). Bestalde, prezioek *Garraio-materialaren fabrikazioaren* sektorean baino ez dute egin behera (% 1,1), urte arteko terminoetan.

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da horientzat guztientzat: *Energiarenak* % 70,0 egin du gora, *Bitarteko ondasunenak* % 21,1 eta *Ekipo-ondasunenak* % 5,3. *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 5,1eko hazkundera izan dute prezioetan, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 5,1 igo direlako eta *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak % 4,9 igo direlako.

## INFORMAZIO-OHARRA

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, apirileko indizea laginaren % **96,07**ko estaldurarekin kalkulatu da – haren informazioa apirilean eta maiatzean jaso da–.

---

### **Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*